



BEZERO KANALA

Gure bezeroak gurekin kontaktuan jarri ahal izateko modu desberdinak ditugu. Autobusen bat eskatzekoan, gure aplikazioa erabili behar da (**BUS-G**). Aplikazioan bertan, ze ordutan, ze lekutan eta zenbat pertsona diren jarri behar da, baita ere bere sarrera hemendik erosi behar da eta gero gidariari QRa erakutsi. Edozein zalantza edukitzekotan, instagrama daukagu (**BUS-G enpresa**), hortik edozein zalantza galdetu eta azkar erantzungo diogu.

Lurraldebusari deituko genioke, autobusa eskatuz prezio baten truke, leku batean geratu eta autobusa hartuko genuke, gero aplikaziotik jarri duten lekura joango ginateke, normalean. Gertatu daiteke pertsonaren bat azken momentuan ezin izan joatea edozein gauzarengatik. Orduan telefonoz deituko dezake abisatuz (**693429525**) edo bestela gure instagrametik ere esan dezake, baina hobe da telefonoz deitzea, momentuan hartuko genukeelako. Zerbitzua bukatzekoan, autobusa eskaini diguten enpresari, autobusa bueltatu beharko diogu.